



ABAOtxikik aurkezten du:



**OPERA NAZAZU,
ZER DEMONTRE DA OPERA?**

Maiatza 2019

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena eta fitxa artistikoa: Opera nazazu, zer demontre da opera?.....	2
Egilea: José Manuel Zapata.	
2. Konpositoreak: J. Offenbach, G. Rossini, G. Donizetti, G. Bizet eta G. Verdi	6
3. Kontzeptu musikalak:	8
- Bakarlariak eta ahots motak	8
- Pianoa.....	11
4. Ikuskizuna:	12
- Argumentua	12
- Laborategia	12
- Pertsonaiak	13
- Musika	16
- Luxuzko bi babesle	21
5. JARDUERAK	23
1. Opera bat ekoizteko eskema osatu.	
2. Definizioak.	
3. Harreman-jolasak: ahots motak-pertsonaiak, konpositorea-opera edo doinua.	
4. La Traviata operako “Brindisa” Orff musika-tresnekin jotzea.	



1. AURKEZPENA

Publiko mota orori zuzendutako ikuskizuna, **José Manuel Zapatak** sortua Palau de les Arts Reina Sofía-ko Centre de Perfeccionament Plácido Domingo-rekin elkarlanean; opera munduaren zirrikituak modu umoretsuan erakusten dizkiguna.

Zer da opera nazazu?

Umorez betetako komedia musikala; emanaldian, historiako opera pasarte onenetakoak interpretatzen dira, familiak operaren mundura hurbiltzea xede.

Zergatik eta norentzat?

Nire ibilbidean ikasi dudalako opera ikustera joan ez den jendearen azalpena “opera ulertzen ez dutela” izan ohi dela. Horregatik azaldu nahi izan dut zein osagaik osatzen duten genero lirikoa, musikaren eta umorearen bitartez.

Familiei zuzendutako ikuskizuna da.

Non?

Laborategi zoro batean; bertan, Hans-Franz Tenor doktorea frustratuta dago ezin izan dituelako tenor ospetsua izandako aitaren (Giuseppe Zapparotti) pausoak jarraitu. Angela Kermel zientzialari nuklearrak robotika aurreratuari buruzko ezagutzak erabiliko ditu androide bereziak sortzeko, Hans-Franzek inoiz kantatu ezin izan duen bezala kanta dezaten. Baina doktoreak ez du bere bigarren nortasunaren berririk, tenor italiar batenarena, hain zuzen, beroaldietan bere buruaz jabetzen dena. Azkenean, bere laguntzaile tioldarrarekiko maitasunak tenor alderdi horren aldeko jarrera hartzera bultzatuko du.



FITXA ARTISTIKOA



Eszena-zuzendaria:

Eszenografia:

Jantziak:

Irudien sorkuntza:

Argiztapena:

Eszenografia, jantzien eta tresneriaren errealizazioa:

Ekoizpena:

Allex Aguilera

Manuel Zuriaga

Carmen Jabaloyes

Miguel Bosch

Antonio Castro

Palau de les Arts Talde Teknikoa

Palau de les Arts Reina Sofia

Aktoreak:

Hans-Franz Tenor Doktorea

Frau 4

Sopraneitor 3000

Mezzosopra 2.0

R-Dor Tenor

Baritron

Pianista

Vicent Romero

Federica Alfano

Vittoriana de Amicis

Andrea Orjuela

David Ferri

César Méndez

Rafael Andrade



Nabarmentzekoa da Granadako José Manuel Zapata tenorra bera dela ekoizpen honen ideia izan zuen artista eta. Bere biografia ere umorez idazten du tenorrak.

JOSE MANUEL ZAPATA



Esta mía,
va en primera persona

Biografiak beti idatzi ohi dira hirugarren pertsonan, nahiz eta, gehienetan, norbera izan bere biografia idazten duena.



Mendea igaro da dagoeneko Granadan jaio nintzenetik 1973ko uztailaren 31n, eta negarrez eman nituen bataio arteko egunak... horixe dio amak, behintzat. Haurtzarotik, musika izan da nire kiderik handiena. Gurasoen disko-jogailuan, Julio Iglesiasen eta Los Panchosen doinuak dira nire lehen oroitzapenak. Baita Rumba Tres, Iva Zanicchi, Carlos Gardel eta beste askorenak ere; horiek guztiak luzaroan erromantiko hutsa izatearen errudunak dira.

Musika klasikoarekiko harremana berandu eta kasualitatez iritsi zen, 18 urterekin, institutuko lagun batek bere abesbatzan onartuko nindutela esan zidanean. Probatzera joan nintzen eta... Haendel-en Alleluia zegoen: bat-bateko maitasuna izan zen, ahots haiek eta elkar txirikordatzen ziren harmonia haiek txunditu egin ninduten, hipnotizatzeraino.



Burugogor ospeari men egin eta kantua ikasi behar nuela tematu nintzen, gurasoak ere konbentzitu nituen (ordura arte Perales kantatzen baino ez zidaten entzun; hura shocka!). Madrilera joan nintzen, Toñi Rosado ezagutu nuen, Madrileko Kantu Eskolan sartzeko prestatu ninduen irakaslea, eta garai hartan... Gogoratu ere ez dut nahi egin, goazen aurrera.




Granadara itzuli nintzen, lur jota, baina berehala ezagutu nuen lagun handi bat, nire Irakasle nagusitzat jotzen dudana horrengana eraman ninduen. Valentziako koruan sartu nintzen, hara bizitzera joan nintzen eta, garrantzitsuena,



nire bizitzarekin eta musikarekin zoriontsu izaten hasi nintzen. Handik gutxira, bakarlarik kantatzen hasi nintzen eta, 2002an, bizitza aldatuko zidan pertsona ezagutu nuen: Alberto Zedda. Hark aurkeztu zidan bigarren pertsona garrantzitsuena: Giacchino Rossini. Orduan, nazioarteko ibilbide "rossiniarra" hasi zen, nire amets profesional guztiak betetzera eraman nauena...

4 urte eskasean, Valentziako Erkidegoan emanaldiak egitetik New Yorkeko Metropolitan Opera Housen debutatzera igaro nintzen, bidean Madrilgo Teatro Real, Bartzelonako Teatre del Liceu, Berlingo Deutsche Oper, Dresdeko Semper Oper, Reggio di Parma, Palermoko Massimo, Rossini Opera Festival, Pariseko Théâtre Chatelet eta Champs Elysees, Theater An der Wienen eta beste antzoki zoragarri askotan abestuta. Munduko kantaririk onenekin abesteko ohorea izan dut (Flórez, Garança, Antonacci, Fleming, Bronwlee, Podles, Blake, Di Donato...), baita orkestra-zuzendari paregabeekin ere (Zedda, López-Cobos, Spinosi, Rousset, Pons, Frizza, Allemandi, Scimone...).



Eta horren guztiaren artean, hainbat opera grabatu ditut, baita seme-alabatzat jotzen ditudan bi disko ere: Tango Mano a Mano eta Operazza. Ondokoak ere idatzi eta zuzendu ditut, elkarlanean: Óperame, Los Divinos, El hombre que se llamaba Amadeus. Alegia, gelditu gabe aritu naiz! Azken 12 urteotan, arima zatitxoak utzi ditut antzoki horietako bakoitzean eta lankide horietako bakoitzarengan. Gauza bera egiten jarraitu ahal izatea espero dut, lurte askoan. Etorkizuna? Liceu, Real, An der Wien, Oper Rhein... baita "A-tenor-ados", "Barrockeros!" eta askoz gauza gehiago ere!



2. KONPOSITOREAK

Jarraian, ikuskizunean entzungo ditugun operetako pasarteen zenbait konpositoreren biografia laburra eskaintzen dizuegu. Besteak beste: J. Offenbach, G. Rossini, G. Donizetti, G. Bizet eta G. Verdirena.

- **Jacques Offenbach** (Kolonia, Alemania, 1819ko ekainak 20 – Paris, Frantzia, 1880ko urriak 5) konpositore eta biolontxelo-jotzaile alemaniarra izan zen, frantses nazionalizatua, opereta modernoaren eta komedia musikalaren sortzailea. XIX. mendeko musika herrikoi europarraren baitan, eragin handieneko konpositoreetako bat izan zen, eta satiraren erregea: bere operetek iseka egiten zieten erakunde frantses entzutetsuei.



- Gioacchino Rossini 1792ko otsailaren 29an jaio zen —urte bisustua!— Italiako Pesaro hirian, Iraultza Frantsesaren garaian, Errepublika frantseseko gudarosteak Italiako hiri askotan sartu eta hedatu zirenean.

Rossiniren familia umila musikan aritzen zen. Bertako bandako tronpeta-jole baten eta partiturak irakurtzen ez zekienez opera paperak buruz ikasi behar zituen bigarren mailako opera abeslari baten seme bakarra izan zen. Gurasoek zuten musika prestakuntza eskasak motibatu egin zituen semeari musika-hezkuntza egokia emateko.

Gioacchinok oso ahots ona zeukan. Oso gaztetatik musikarako trebetasun nabarmenak erakutsi zituen. Amaren eskutik opera asko ikusi ahal izan zituen.

14 urterekin Boloniako Akademia Filarmonikoan onartu zuten, bertan musika ikasi ahal izan zuen eta Mozart eta Haydnen obrak kontsultatu. Boloniako Akademia zen bi musikari alemaniarren partiturak aurki zitezkeen Italiako leku bakarra. Haien azterketak bere musika hizkuntzako nozioak hobetzea ahalbidetu zion.

Rossinik orkestra hedatu zuen, haize-tresnei garrantzi handiagoa emanda, ordura arte orkestra italiarretan presentzia handirik ez baitzeukaten. Soinu potentzialtasun handiagoa eman zien musikan tentsiotik baretasunera eta alderantziz joatea eragiten duten crescendoak eta diminuendoak sartuta, publikoaren gustuko aldaketak.

1806an, Akademian sartu zen urtean, Rossinik lehen opera idatzi zuen: Demetrio e Polibio. 1810ean, Veneziako opera antzoki batek ekitaldi bakarreko opera bufa bat eskatu zion: La cambiale di matrimonio. Oso arrakastatsua izan zen. 18 urterekin Rossinik bere ibilbide profesionalari ekin zion opera konpositore gisa.

18 eta 37 urte bitartean 30 opera konposatu zituen. Ia bat eta erdi urtean! Sortutako opera bufek —komikoek— bere garaiko konpositore europar famatuena bihurtu zuten. Ezagunenak eta antzeztuenak hauek dira: L'italiana in Algeri (Italiarra Argelen, 1813); Il turco in Italia (Turkiarra Italian, 1814); Il barbiere di Siviglia (Sevillako bizargina, 1816) eta La Cenerentola (Errauskine, 1817).



Bere operei esker, Rossini Italia osoan izan zen ospetsua. XVIII. mende bukaerako eta XIX. mende hasierako publiko italiarrak gogoz itxaroten zituen bere opera bufak. Opera nagusietako enpresariak (Venezia, Milan, Napoli, Erroma, Viena, Paris,...) etengabe eskatzen zizkieten modan zeuden konpositoreei hurrengo denboraldiko programazioetan estreinatzeko errepertorio berriak.

Rossini Viena eta Londresera bidaiatu zuen eta bertan, bere ospea areagotzeaz gain, diru-kopuru handia irabazi zuen kontzertuak zuzenduz eta musika-eskolak emanaz. Passyn, Parisetik hurbil, jarri zen bizitzen monarkia frantsesak Pariseko Operan estreinatuko ziren hamar opera konposatzeko kontratatu zuenean. Guillaume Tell (Gilermo Tell, 1829) izan zen bere azken opera-konposizioa. 1830eko uztailleko iraultzak monarkia kendu zuen, eta ondorioz, bere kontratua amaitu egin zen.

Konpositore lanetan 38 urterekin hartu zuen erretiroa. Harrezkero, bere buruaz arduratu zen: lasaitasuna eta elikagai onak maite zituen. Horrela, ondo merezitako ospearen saria jasotzen zuen.

Hirurogeita hamasei urte arte bizi izan zen, nabarmentzeko moduko musika nobedaderik berriz konposatu gabe; beti bere miresleen konpainiaz inguratuta. Parisetik hurbil hil zen 1868ko azaroaren 13an.



- **Domenico Gaetano Maria Donizetti**, Gaetano Donizetti (Bergamo, 1797ko azaroak 29 - 1848ko apirilak 8) izenarekin ezagunagoa, opera konpositore italiar oso emankorra izan zen. Ondoko obrek bilakatu zuten oso ezagun: L'elisir d'amore, "Una furtiva lagrima" aria famatua jasotzen duena; Lucia di Lammermoor, Walter Scotten eleberrian oinarritua; eta La favorita, ekintza Madrilen (Espainia) kokatzen duena.

Konpositore sorturiko errepertorioak genero ugariri heltzen badio ere, musika erlijiosoak, hari-laukoteak eta orkestrarako obrak barne, batik bat bere obra lirikoagatik da ezaguna, 75 opera ere konposatuta.

- **Georges Bizet** (Paris, 1838ko urriak 25 - Bougival, 1875eko ekainak 3) epealdi erromantikoko konpositore frantsesa izan zen. Senide eta lagunak Georges deitzen zioten, eta izen horrekin da ezaguna, baina bere benetako izena Alexandre César Léopold zen. Musikarien familia batekoa, haur prodijioa izan zen eta bederatzi urterekin sartu zen Parisko Kontserbatorioan. Bertan, Zimmermann, Marmontel eta Halévyren dizipulua izan zen. 1857an, Le Docteur Miracle obrako ekitaldi batekin Jacques Offenbachek eskainitako saria partekatu zuen Charles Lecocquekin, eta Erromako Sari desiratu eskuratu zuen. Bekaren baldintzen arabera, hiru urtez egon zen Erroman ikasten. Han, bere talentua garatu zuen Sinfonia Do-n eta Don Procopio opera bezalako obrekin. Erroman emandako garai horretatik at, Bizet Paris inguruan bizi izan zen beti.



- **Giuseppe Fortunino Francesco Verdi** (La Roncole, 1813ko urriak 10 – Milan, 1901eko urtarrilak 27), XIX. mendeko operako konpositore erromantiko italiarra. Egungo errepertorioko izenburu ezagunenetako batzuen egilea da,



haren trilogia herrikoi edo erromantikoa osatzen dutenena, kasu: *Rigoletto, La Traviata e Il Trovatore*.

XIX. mendean, batasun italiarraren garaian, Piemonte-Sardiniako Victor Manuel II.ak gidatu zuena, batzeko grina «Biba VERDI!» oihukatuz adierazten zen, VERDI «Vittorio Emmanuele Re D'Italia»ren akronimoa izanik.

Milango kontserbatorioak, Verdi gaztea onartu ez zuenak, konpositorearen izena jarritz aldatu nahi izan zuen izena, musikariak heldutasunean lorturiko ospe eta arrakastagatik; konpositoreak, baina, zera erantzun zuen:

«Ez ninduten nahi izan gaztetan, ez dakit zergatik nahi nauten zahartzaroan». Egun, kontserbatorioak haren izena darama.

1982an, asteroide bat deskubritu eta, konpositorearen izenez, Verdi izendatu zuten.

3. KONTZEPTU MUSIKALAK:

Operaren mundua ezagutzen hasteko jakin beharreko oinarritzko gauzetariko bat ahotsen sailkapena da. Abeslarien ahotsa baxuagoa edo altuagoa izan, era batera edo bestera deitzen zaie.

Jarraian, sailkapen hori zehaztuko dugu.

ABESLARI BAKARLARIAK

Kantua giza-ahotsa erabiltzeko modu bat da, fonazio-organoen jarduera berezia eskatzen duena, eta horrekin lotuta, beste maila batean bada ere, entzumen-sentimena. Ahotsa, beste edozein musika-tresna bezala landu egin behar da potentzia, bizitasuna eta malgutasuna handitu nahi badugu. Ahotsa trebatzeko egiten den prozesuari inpostazioa deitzen zaio. Opera antzezteko derrigorrezkoa da ahots inpostatua izatea. Musika herrikoia egitean berriz, ahots naturala erabiltzen da oro har.

Kantuararen balio artistikoak zenbait baldintza ditu: arnasketa, ahotsaren eta tinbrearen igortzea, fraseatzea eta adieraziaren xehetasunak.

AHOTSEN SAILKAPENA

Ahotsak sailkatzeko dagoen sailkapen naturalenak bi talde handi bereizten ditu: emakumezkoak eta gizonezkoak. Bere tesituraren (ahots mota batek era erosoan bete dezakeen nota multzoa, nota baxuenetik altuenera) arabera emakumezkoen ahotsak soprano, mezzosoprano eta kontralto bereizten dituzte eta gizonezkoenak tenore, baritono eta baxu.

Emakumezkoen ahotsak:

SOPRANO




Emakume ahotsen artean sopranoen ahotsa altuena da. *Rigoletto* (G. Verdi) operako Gilda edo *L'elisir d'amore* (G. Donizetti) operako Adina dira adibide horietako bi.



Soprano ahotsaren eremua

MEZZOSOPRANOA


Mezzosopranoa sopranoaren eta kontraltoaren artean dagoen emakumezko ahotsa da. Batzuetan soprano dramatikoarekin nahas daiteke. Adibidez: G. Bizeten *Carmen* operaren Carmenen pertsonaia.



Mezzosoprano ahotsaren eremua

KONTRALTOA

Kontraltoen ahotsa emakumeen artean dauden ahotsen artean baxuena da. Gaur egun ez da ohiko ahotsa eta horregatik, askotan, mezzo-sopranoek kontraltoen lana egin behar izaten dute. Adibide aipagarri bat *Rigoletto* (G.Verdi) obrako Maddalena pertsonaiarena da.



Kontralto ahotsaren eremua

Gizonezkoen ahotsak:



TENOREA


Tenore ahotsa gizonetzkoen artean dagoen ahotsik altuena da. Horren adibide *L'elisir d'amoren* (G. Donizetti) operan Nemorino pertsonaiaren papera izan liteke edo *Rigoletto* (G. Verdi) laneko Dukearen pertsonaiarena.



Tenore ahotsaren eremua

BARITONOA

Baritonoen ahotsa gizonetzkoen tarteko ahotsa da. Adibidez: Rigoletoren ahotsa *Rigoletto* (G. Verdi) operan edo sarjentu Belcoren pertsonaia *L'elisir d'amore* (G. Donizetti) operan.



Baritono ahotsaren eremua

BAXUA

Gizonetzkoen ahotsen erregistroak duen ahotsik baxuena baxua da. *Rigoletto* (G. Verdi) laneko Sparafucile eta *L'elisir d'amore* (G. Donizetti) laneko Dulcamara.



Baxu ahotsaren eremua



PIANOA

Ikuskizun honetan, funtsezko osagaia da, eta Steinway markako isats-piano paregabea entzungo da.



Pianoa tekla polifonikoko instrumentua da, 7 eskala diatonikok osatua. Guztira 52 tekla zuri, eta 36 beltz dauzka, nota naturalei eta aldarikatuei dagozkienak, hurrenez hurren.

Gainera, hiru pedal ditu behealdean, oinen parean, doinuaren gainean jarduteko gaitasun handiagoa eskaintzeko funtzioa dutenak. Eskuineko pedalak harien feltroak banatzeko balio du, horiek dardarka uzteko, jotzaileak tekla kolpekatzeari utzi ondoren ere. Erdikoa sordina deritzona da, harien aurrean feltro bat jarrita soinua leuntzen duena. Azkenik, ezkerreko pedalak tekletarantz hurbiltzen ditu piano barneko mailuak. Beraz, pianoaren soinua desberdina izango da bai teklak kolpekatzeko indar eta moduaren arabera, bai pedal horien erabileraren arabera.

Isats-pianoetan, ezkerreko pedalari “zelesta” deitzen zaio eta, nota bakoitzean 3 hari kolpekatu beharrean, bakarrik bi kolpatzen ditu, horrela soinua leuntzearen.

Piano mota ezberdinak daude: bertikalak eta isats-pianoak.

PIANO GRAN COLA STEINWAY & SONS

Steinway & Sons pianoek 1853. urtean dute beren jatorria, Heinrich Steinweg alemaniarren eskutik, Europako tradizioz onenean entrenatua. Amerikara emigratu zuen bere familiarekin eta New Yorken ireki zuen bere lantegia.

Steinway & Sons isats-piano baten eraikuntzak urtebete ematen zuen gutxi gorabehera. Oso produktu fina zen, eta, materialak arreta handiz hautatzeaz gain, eraiki aurretik horretarako klimatizaturiko geletan prestatzen ziren.

Steinway & Sons pianoek soinu, ukitze eta estetika konpromiso paregabea dute, hala nola inbertsio-balioa.

Egun, **piano marka hau** munduko entzutetsuenetakoa da, kontzertu-areto onenetan izaten da eta **pianista ugari aukeratzen dute**.



4. IKUSKIZUNA:

ARGUMENTUA

OPERA NAZAZU, zer demontre da opera? ikuskizunean, José Manuel Zapatak **Hans-Franz Tenor Doktoare**arena egiten du. Asmatzaile zoro eta zapuztua da, eta bere ezagutzak berak inoiz ezin izan duen moduan abesteko gai izango diren robotak eraikitzeke baliatzen ditu. Aita, Giuseppe Zapparotti, tenorra zuen, eta ama, Angela Kelmer, zientzialari nuklearra.

Halere, Doktoareak ez daki **nortasun bikoitza** duela: doktoarearena eta tenor italiar batena, beroaldietan haren buruaz jabetu eta operaren historiako aria ezagunenak abestera eramaten duena.

Horrela, publiko orok ulertzeko moduko tonuan, esamolde komiko, ustekabe eta proiektzioekin, Zapatak (gagak tartekatuz) **operaren mundu liluragarriko** pasarte/aria garrantzitsu eta bikainenak entzun eta ezagut ditzagun lortzen du, eta, aldi berean, opera ulertzen eta maitatzen ikastera eramaten gaitu, esaterako, Verdiren La Traviata, Rossiniren La Cenerentola edo Offenbachen Les contes d'Hoffmann, operaren munduaren inguruko ikastaro azkar honen bidez.

LABORATEGIA



Ikuskizuna oso-osorik garatzen da Doktoarearen laborategian; bertatik programatuko ditu bere androideak. Laborategia.- Izaera zientifiko edo teknikoko ikerketak, esperimentuak eta lanak egiteko beharrezko bitartekoez hornituriko lekua.

Zertarako: LANTZEKO,
ESPERIMENTATZEKO, FROGATZEKO,
PROBAK EGITEKO, IKERTZEKO,
PROGRAMATZEKO...

Laborategien historia medikuntzaren historiaren eraginaren mende dago, izan ere, gizakiak, bere gorputza sakonago ezagutu nahi izan duenean, gero eta laborategi espezializatuagoak erabili behar izan baititu.



PERTSONAIK

Hans-Franz Tenor Doktorea



Doktorea zientzialari zoroa da, tenor famatu baten (Giuseppe Zapparotti) eta zientzialari nuklear baten (Angela Kelmer) semea, zapuztuta bizi dena ezin dituelako aitaren pausoak jarraitu.

Bere proiektuak jasaten duen zientzialari-tenor bipolaritatea gainditzen lagunduko dio, berak ere ezagutzen ez zuena, eta barruan duen tenor nortasunarekin geratzen.

Frau 4



Hans-Franz Tenor Doktorearen laguntzaile tiroidarra. Municheko unibertsitatean ikasia, zientzialari bikaina da, urteak daramatzan Doktoreari bere ikerketetan laguntzen. Itxuraz lotsatia, seko maiteminduta dago Bipolar zientzialariaren nortasun italiarrarekin.




R- Dor Tenor



Robot hau Giuseppe Zapparotti tenor ospetsu eta doktorearen aitaren itxura berdinarekin eraiki zen. R- Dor Tenorrek fideltasunez erreproduzitzen du gizonezkoaren ahotsik altuena: tenorra da. Mezzosopra 2.0rekin maiteminduta dago, baina Sopraneitorrekin ibiltzen da lakrikunkeriatan.


Sopraneitor 3000



Emakumezko robot oso azkar eta irtirina da, emakumezkoaren ahots altuenarekin kantatzen duena: sopranoa da. R- Dor Tenorrekin maiteminduta dago, baina ez du zereginik... Bihotza daukan bakarra da.




Mezzosopra 2.0



Doktore tenorraren amaitu gabeko obra da. Krisialdiko murrizketak tarteko, aurrekonturik gabe geratu zen robotaren hankak eraikitzeko...

Baina zoragarri abesten du! Emakumezkoaren ahots baxua kantatzen du (kasu honetan, ez baitago kontraltorik). Oso-oso maiteminduta dago R- Dor Tenorrekin..

Baritron



Hau Baritron da. Androide honek ezin hobeto erreproduzitzen du gizonezkoaren tarteko ahotsa: baritonoa da. 4 automaten artean, bera da independenteena.



MUSIKA

Ikuskizunean, robotek eta gainerako pertsonaiek zenbait kanta herrikoi eta hainbat operaren pasarteak abestuko dituzte. Jarraian, kanta horiek eta zein operatakoak diren zehazten dizuegu.

- “O sole mio”

Italiaren abesti ikurrak eta milaka etorkin italiarrek Amerikara heldutakoan nostalgia handiz abesten zutenak ehun urte bete ditu. O sole mio, izenburu hori eduki eta Tirrenoa eta Napoli eta Siziliako inguruak eta penintsulako eguzkia iradokitu arren, 1898ko martxoan idatzi zuen Eduardo Di Capua konpositoreak beraren lurraldetik oso urrun, Ukrainiako Odesa hirian, hain zuzen, Mediterraneo distiratsua oso bestelakoa den Itsaso Beltzaren ondoan. Giovanni Capurroren poema batean oinarritu zen, mende bukaerako Italiako nobleziako dama eder bati, Ninna Arcoleori, eskainia zegoena; egun gutxian, mundu osoan famatua bihurtuko zen abestia sortu zuen. Abestiak, ospetsuaren ospetsuaz, gatazka biziak ere eragin ditu, eta inoiz Italiako himno nazionala izateko ere proposatu izan dute.

Berriz Napolin, Di Capuak lehiaketara aurkeztu zuen abesti ederra Bideri argitaletxe musikalean, eta, harrezkero, O sole mio tokiko ikur baino askoz gehiago bilakatu zen: gondolariek turistak garraiatu bitartean abesten zuten, iraingarria zena eskualde veneziarreko abesti tradizionalentzat, ezin baitzuten onartu Napoliko doinu batek balada veneziar kexatiak ordezkatzea.

Zinemak behin baino gehiagotan omendu zuen Di Capuaren kanta ezaguna. Abestiaren nazioarteko ospe handiaren beste erakusgarri bat Josephine Bakerrek eta Elvis Presleyk, esaterako, abesturiko bertsioak dira, haren doinu hilezkorra aipatzen duen lurralde hartan jaio balira bezala kantatu zuten opera abeslariak ahaztu barik, besteak beste, Pavarotti eta José Carreras.

- **Olimpiaren abestia: “Les oiseaux dans la charmille” (“Hoffmannen ipuinak”, J. Offenbach)**

Bere bizitzako azken urteetan, eta ia ehun opereta konposatuta fama lortu ostean, Jacques Offenbachek lirikari heldzea erabaki zuen, eta opera serio eta tamaina handiagokoa idatzi zuen. Horretarako, Ernest Theodor Amadeus Hoffmann musikari eta idazlearen zenbait istoriotan oinarrituriko Jules Barbier eta Michel Carréren antzezlan batek eskainitako gaia aukeratu zuen. Jacques Offenbachek ez zuen estreinaldia ikusi: lau hil lehenago zendu zen.

Hiru ekitalditan gehi hitzaurre eta epilogo banatan konposatua, protagonista benetan existitu zen: Ernst Theodor Amadeus Hoffmann musikari eta idazle alemaniarra, 1776 eta 1822. urteen artean bizi izan zena. “Hoffmannen ipuinak” idazle horren hiru narraziotan daude oinarrituta, modu autobiografikoan zapuzturiko amodioak kontatzen dituztenak.



Baliteke operako pertsonaiak gehiegizko samarrak iruditzea, baina ez da ahaztu behar Hoffmannen irudimenak itxuragabetzen dituela, izan ere, hark kontatzen baititu ipuinak alkoholaren etengabeko eraginaren pean. Hala, emakumezko lau pertsonaia nagusiek protagonistaren idealizazioaren ertz desberdinak aurkezten dituzte; lau gaizkileek antzeko eskema osatzen dute, haren profil diabolikoan bere burua hondatzeko Hoffmannen buru galduaren grina bera sinbolizatuta.

Ekitaldi bakoitza emakumezko pertsonaia batek protagonizatzen du (Hoffmann poetaren pertsonaia (tenorra) bakarrik agertzen da ekitaldi guztietan) eta, nahiz eta ekitaldien antzezpen ordena desberdina izan daitekeen, Offenbachek bertsio honetan jarraituriko ordenarekin sortu zuen obra, jada ohikoa bihurtu dena: ***Olympia – Antonia – Giulia***. Hitzaurre eta epilogo ekintza Nürembergen garatzen da, eta hiru ekitaldiak, berriz, Paris, Munich eta Venezian, hurrenez hurren, XIX. mendean.

Ipuin moduan kontaturiko argumentua:

“Parisen, Spalanzani deituriko asmatzaile bat bizi zen. Sortzen zituen panpinak hain zifren perfektuak, ezen bizidunak ematen baitzuten. Haietariko batek Olimpia zuen izena, eta ezagun guztiei aurkeztu nahi zien.

Spalanzanik lagun bat zuen: Hoffmann. Aurkezpenaren egunean, Hoffmann asmatzailearen etxera joan eta Olimpia ikusi zuen. Une horretan, erabat maitemindu zen panpinarekin. Harekin zeuden lagunak esan zioten panpina bat baino ez zela, baina hark ez zien jaramonik egin.

Orduan, Coppelius agertu zen, beste asmatzaile bat. Olimpia egiten lagundu zuen, baina Coppelius ez zen ondo moldatzen Spalanzanirekin (etsaiak ziren). Hoffmann ikustean, “begi magiko” pare bat saldu zion, Olimpia are ederrago ikusteko.

Benetan, Coppelius bere lana kobratzera joan zen Spalanzaniren etxera, baina gezurrezko txeke bat jaso zuen.

Iritsi zen Olimpia gonbidatu guztiei aurkezteko unea. Panpinak “Les oiseaux dans la charmille” (txoriak adarrean) aria abestu zuen. Denak afaltzera joandakoan, Hoffman bakarrik geratu zen Olimpiarekin eta bere maitasuna aitortu zion, baina panpina korrika atera zen gelatik.

Bien bitartean, Coppelius oso haserre bueltatu zen bankutik, ezin izan zuelako dirua kobratu. Gonbidatuak afaritik itzulitakoan, zarata arraroak entzun zituzten: Coppeliusen panpina suntsitu zuen.

Azkenean, gonbidatu guztiek barre egin zioten Hoffmanni automataz maitemindu zelako eta orain oso goibel zegoelako”.

- **“Un soave non se che” abestia,**

G. Rossiniren La Cenerentola operakoa

(Maitasun duoa: mezzosopranoa eta tenor/printzea)

Errauskine, hau da, ontasun garailea (jatorrizko izenburua italieraz: La Cenerentola, ossia la bonta in trionfo) bi ekitaldiko opera komikoa da, Gioachino Rossiniren musika eta Jacopo Ferrettiren italierako



libretoarekin, Errauskine maitagarrien ipuinean oinarritua. Opera Erromako Teatro Vallen estreinatu zen 1817ko urtarrilaren 25ean.

Rossinik 25 urte zituenean konposatu zuen *Errauskine*, aurreko urtean arrakasta handia lortu ondoren Sevillako bizargina operarekin. Uste da *Errauskinen*, egileak hiru astean bukatu zuen opera honetan, ahots bakarrerako eta taldeetarako Rossiniren konposizio onenetariko zenbait daudela.

Bi ekitaldiko opera. Perraulten ipuina opera bufaren moldera egokituta, amaorde klasikoa beharrean baxu bufo bat jarrita “aitaorde”, eta Rossiniren musika apaindua duena, batik bat Errauskinerentzat.

- **“Sposa son disprezzata” aria, A. Vivaldiren Bajazet operakoa (pasticcio).**

Bajazet pastiche bat da. Vivaldiren garaian oso ohikoa zen konpositoreentzat beste konpositore batzuen ariak eskatu eta beren obrei egokitzea opera baterako. Vivaldik berak konposatu zituen pertsonaia onentzako (Bajazet, Asteria eta Idaspe) ariak, eta beste konpositore batzuen aurretikoak batik bat pertsonaia gaiztoentzat (Tamerlano, Irene, Andronico) baliatu zituen.

Jatorrizko ariaren konpositorea: G. Giacomelli.

- **“Quanto è bella!” aria, G. Donizettiren Maitasun elixirra operakoa.**

Maitasun elixirra (jatorrizko izenburua italieraz: *L'elisir d'amore*) bi ekitaldiko opera komikoa da, Gaetano Donizettiren musika eta Felice Romanoren italierazko libretoarekin, Daniel-François Auberren operarako Eugène Scribe-ren Le philtre libretoa (1831) oinarritua.

Donizettiren opera guztien artean, Maitasun elixirra antzetzuenetakoa da, eta grabazio ugari daude. Argumentu burutsua eta musika alaia ditu, eta operako pasarte musikal ezagunena Una furtiva lagrima da.

- **“Non ti scordar di me” abestia, Ernesto de Curtisena.**

1935ean propio idatzi zen film baterako, eta Beniamino Gigli abestu zuen. Itzulita, zera esan nahi du: “Ez nazazu ahaztu”. Filmak izenburu bera dauka.

- **“Mein Herr Marquis” abestia, J. Straussen Die Fledermause operakoa.**

Izenburuaren itzulpena: Saguzarra. Henri Meilhac eta Ludovic Halévyren (Carmen operaren libretoa idatzi zuten berberak!) komedia batean oinarritua.

3 ekitaldiko komedia erromantikoa da. Umorezko egoera gehienak mozkorraldietatik, nortasun nahasteetatik eta operan betidanik ohikoak diren gizon eta emakumeen apetetatik eratortzen dira. Ospe ikaragarriko obra hau opereta bat da benetan, beraz, hitz egindako elkarrizketak dituzten eszenak dauzka (egun, komedia musikala deituko genuke).



Johann Strauss, semea, Valsaren Erregea da, jakina, Danubio Urdina eta ospetsu baino ospetsuagoak diren beste vals batzuk idatzi zituen. Opera gozo eta arin honetan, uneoro suma daiteke haren izaera txinpartaria, valsalea eta melodiatsua, bereziki famatu-famatua den oberturan.

- **“¡Ay!, linda amiga”**

Egile anonimoa. Santanderreko doinu herrikoa.

- **Barcarola, J. Offenbachen “Hoffmannen ipuinak”.
(Giulietta eta Nicklausseren duoa)**

Barcarola gondolari veneziarrek abesturiko kanta folklorikoa da, edo, bestela, estilo hori imitatzen duen obra musikal idatzia.

Hoffmannen ipuinak obra desilusio garrantzez beteriko hiru istoriok osatzen dute, gehi hitzaurre eta epilogo banak; hau istorio horietako bat da.

- **Toreatzailea, G. Bizeten “Carmen” operakoa.**

Maitasun obsesio baten inguruko tragedia da, elkarriketak dituen, lau ekitaldikoa. Bukaera izugarria du: Carmenen izua eta heriotza bortitza zezen-plazatik jendearen bibak heltzen diren bitartean gertatzen dira.

Opera honen estreinaldia porrot sonatua izan zen. Bizetek bere maisulantzat jotzen zuen eta estreinatu eta hiru hilera hil zen depresio sakon-sakonak jota. Bizitzaren ironiak, Carmen mundu osoko opera maitatu eta antzetzuenetakoa bihurtu zen.

- **“Questo è un nodo avviluppato” seikotea,
G. Rossiniren La Cenerentola operakoa.**

- **“Ti voglio bene assai” abestia / Caruso (Historia)**

Abesti honen lehenbiziko eta jatorrizko bertsioa Lucio Dallak idatzi eta kantatu zuen, Carusori eskainita, Sorrenton egon eta hiri horren edertasunak liluratuta geratu ostean.

Lucio Dallari ontzia hondatu zitzaion. Sorrenton, Grand Hotel Excelsior Vittoriako luxuzko apartamentu bat baino ez zegoen erabilgarri. Carusok bertan eman zituen bere bizitzako azken bi hilabeteak eta hark utzi bezala zeuden oraindik han haren liburuak, argazkiak eta pianoa.

Angelok, portuan taberna bat zuenak, istorio hau kontatu zion... eta hark musikaz oparitu zigun. Carusok eztarriko minbizia zuen eta bazekien denbora gutxi geratzen zitzaiola, baina, hala eta guztiz ere, hori ez zen eragozpen izan maite zuen neskatilari kantu eskolak emateko. Bero handiko gau batean, ez zion uko egin nahi izan neskarentzat abesteari, hark mirespenez begiratzen baitzion, beraz, ondoezik egon arren, pianoa portura begirako terrazara eramanez eta maitasun eta sufrimendu aitortza sutua abesten hasi zen. Haren ahotsa indartsua zen eta arrantzaleak, hura entzunda, portura itzuli eta terraza pean geratu ziren tinko. Ontzien argiak hainbeste ziren, ezen izarrak ematen baitzuten, edo, agian, New Yorkeko etxe-orratzen argiak... Carusok bere indarrei eutsi



eta abesten jarraitu zuen, pianoan bermaturiko neskatilaren begietan murgilduta. Gau hartan, haren osasun egoerak okerrera egin zuen. Bi egun beranduago, 1921eko abuztuaren 2an, Napolin hil zen. Abesti honek gau hartako drama kontatzen du... iraganeko argi-ilunekin... heriotza eta bizitzarekin... neskatilaren begietan jada ez dagoen etorkizuna bilatzen duen gizon gaixo bat... maitasun testamentu bat... hori izan zen haren azken kontzertua... eta haiek haren salbuespenezko publikoa... itsasoa, izarrak, arrantzaleak, ontzien argiak eta maitea...

- “O soave fanciulla” abestia,

G. Pucciniren La Bohème operakoa (Mimi eta Rodolfoaren duoa)

Errepertorioko obra maitatuenetakoa lau ekitaldiko tragedia gazi-gozoa ere bada. Gelakide dibertigarri eta zoragarri batzuk maitasunari aurre egiten saiatzen dira Cupidoren gezi-kolpea jasotzen dutenean. Pucciniren lehen arrakasta izugarria izan zen. Benetan melodramatikoa da, baina atsegina eta dibertigarria. Opera honetan, protagonistak hotzak jota dardaratzen dira, komeriak bizi dituzte, txantxetan jarduten dute, gaixorik jartzen dira, maitemindu egiten dira, eztabaidan jarduten dute eta hil ere hiltzen dira: La Bohème da. Xede bakar gustuko lanean jardutea duten artista gazte batzuen pozak eta zoritxarrak kontatzen ditu. Parisen garatzen da, orduan arrakasta izan nahi zuten artista eta idazle gehienek bizitzeko aukeratzen zuten hirian -giro hori oso ondo deskribatzen du Puccinik, Milanen ikasi zuen garaiko gabezia ugariak gogoratzen baitzituen-. Azkenean, opera egiati guztietan bezala, zoritxarra iritsiko da.

- “Libiamo ne' lieti calici” brindisa,

G. Verdiren La Traviata operakoa (Alfredo eta Violetaren duoa)

Hiru ekitaldiko opera, Giuseppe Verdiren musika eta Francesco Maria Piaveren italierazko libretoarekin, Alexandre Dumasen *Kameliën dama* eleberrian oinarritua, nahiz eta ez zuzenean, baizik eta antzerkirako egokitzapen baten bidez.

Verdiren operako ekintza operaren garai berean garatzen da. *La traviata*, Alejandro Dumasen *Kameliën dama* obran oinarritua, hasieran errefusatua izan bazen ere, konpositorearen obra txalotuenetakoa bilakatu zen. Eta hori prostituta ibiltari baten -operaren historian izandako beste baten- tragediaren atzean dauden balio unibertsalei esker, izan ere, emakumeak bizitzari berari uko egingo baitio maitalearen ohorea salbatzeko. Bere pairamenarekin, lehenik jazarri eta gero mespretxatu egiten duen jendarte burges hipokritak ez duen handitasuna erakutsiko du. Verdik, gizatasun sakoneko musikaz eta pertsonaien eta haien sentimenduen antzezpen psikologikoaz, mito mailako sona eman zion istorio honi. “Popoloso deserto, che appellano Parigi”n, luxuaren eta azaleko plazeraren itxura azpian, dena saleros daitekeela uste duen gizarte-klase baten ankerkeria izugarria ezkutatzen da. Iragankortasun garratzeko zoru horren gainean, Violetta bakarrik bilakatuko da heroina klasikoa, haren sakrifizioaren esanahia maitasunaz eta heriotzaz harago joanda.

LUXUZKO BI BABESLE



JOSÉ MERCÉ

José Soto Soto, *José Mercé* izen artistikoa darabilena, flamenko-kantari ijito entzutetsua da, Jerez de la Fronteran (Espainia) jaioa 1955eko apirilaren 19an, Santiago auzo flamenkoan.

Flamenko-kantari ijitoen familia bateko kidea, Paco de la Luzen birbiloba, Manuel Soto Monjeren iloba eta Vicente Soto Sorderaren lehengusua; urte gehien dituen flamenko-kantarien familiakoa. Umetan, Jerezko Mesedeen Basilikako Eskolanian abestu zuen, eta hortik eman zion Antonio Gallardok izen artistikoa. Sei hilez "El Tablao"n egin zuen lan, Cadizen, Santa Maria de la Cabeza kalean, Rancapino, Pepa de Utrera, Juanito Villar eta La Perla de Cádiz izenekoarekin batera.



Hamahiru urterekin Madrilera joan zen bere lehen diskoa grabatzera, gitarrarekin Manolo Sanlúcar eta Paco de Lucía lagunduta. Torres Bermejasen flamenko-oholtzan abestu zuen Mario Maya, Carmen Mora eta Guitoren ondoan. Ondoren, eta 1983ra arte, Antonio Gadesen konpainian egin zuen lan. Garai hartan, Carlos Sauraren "Bodas de sangre" eta "Flamenco" filmetan hartu zuen parte. Manuel Sánchez Pernía konpositore eta ekoizlearen eskutik, José Mercé erreferentziazko artista bilakatu zen flamenkoaren panoraman, "Verde Junco" diskoari esker, zeinetan Tomatito, Enrique de Melchor eta Rafael Riqueniren mailako artistek kolaboratu zuten.



Bere seme-alabetako baten heriotza tarteko urte batzuk agertokietatik urrun eman ondoren, "Del Amanecer..." diskoarekin (Vicente Amigok ekoitzia) itzuli zen eszenara. Teatro Real-en eskainitako emanaldia (bertan aritu zen lehen ijitoa izan zen) aurrerapauso garrantzitsua izan zen bere ibilbidean,



izan ere, flamenko-kantari ezagunena bihurtu baitzen publikoarentzat. Harrezkero, berrikuntzak egitera ausartu da flamenkoa bluesarekin, mailu balkaniarrarekin... nahastuz, edo, besteak beste, Alejandro Sanzekin kantatuz.

Orain arte, milioi bat disko saldu ditu. 2011. urtera arte, urte horretan zendutako Manuel Moreno Junquera "Moraíto Chico" izan zuen ondoan gitarra jotzen.

ALASKA

DATU OROKORRAK:

Nazionalitatea: espainiarra eta mexikarra.

Elektro-pop abeslaria, konpositorea, telebistako aurkezlea, aktorea eta enpresaria.

Olvido Gara Jova (Mexiko Hiria, Mexiko, 1963ko ekainak 13), **Alaska** izen artistikoarekin ezaguna, abeslari, konpositore, aktore eta telebistako aurkezle espainiar-mexikarra da, hala nola Movida madrileña deritzonaren irudietako bat.

1977an ekin zion bere ibilbide musikalari, 14 urte zituela, eta egun arrakasta izugarriak eskuratzen ditu oraindik. Espainian gehien saltzen duen abeslarietako bat da, eta entzutetsuenetakoa. Bere ekoizpen musikalen salmentak, osatu dituen lau talde nagusiak (Kaka de Luxe, Pegamoides, Dinarama eta Fangoria) kontuan hartuta, 15 milioi kopiatik gora daude. LGBT mugimenduaren aldekoa da, baita animalien eskubideen aldekoa ere. Publikoki agertu da



zezenketen kontra animalien eskubideen aldeko AnimaNaturalis elkarteak sustaturiko kanpaina batean, hala nola larruen erabileraren kontra.





MATERIAL OSAGARRIA:
“OPERA NAZAZU,
ZER DEMONTRE DA OPERA?”




JARDUERAK

Eskema

Zuriz dauden koadroetan beharrezkoa den hitza bilatu, jarraian aurkituko duzun zerrendatik bat aukeratuz:

LIBRETISTA – JANTZIAK – KONPOSITOREA – ARGIZTAPENA – MUSIKA ZUZENDARIA –

ABESBATZA – ORKESTRA – ESZENOGRAFIA – MUGIMENDU ESZENIKOA – AHOTSAK



Opera bat pertsona ugariren talde-lanaren emaitza da; ez ditugu agertokian ikusten, baina luzaroan aritu dira lanean.

Irakurri esaldiak eta idatzi pertsona bakoitzari dagokion zenbakia operan egin duen lanaren arabera.

1- Nire lana da abeslariari agertokira noiz sartu behar duten esatea, eta, opera garatu bitartean dekoratuan edo argian aldaketarik egin behar izanez gero, teknikariari ohartaraztea.

2- Dekoratuak diseinatzea da nire ardura.

3- Abeslariari haien papera nola antzeztu behar duten azaltzen diet.

4- Nire espezialitatea da eszenetarako argi aldaketak sortzea eta zaintzea.

6- Abeslariak jantziko dituzten arropak diseinatzen ditut.

Zk.	
	Jantzien Diseinua
	Eszenografoa
	Errejidorea
	Eszena-zuzendaria
	Argiztapen-arduraduna




Lotu gezi batekin ahots mota bakoitzaren definizioa dago(z)kion pertsonaia/pertsonaiekin.


Gizonezko ahots altuena _____ da,
guk abesten duguna bezalakoa.
_____ eta _____
gara.



_____ naiz. Emakumezko
ahotsen arteko altuena daukat.
Nire izena _____ da.



Sopranoaren eta kontraltoaren arteko
ahotsa daukat.
Nire izena _____ da.



Baritonoa naiz, _____ dut
izena.



Nire ahotsak nota baxuenak abesten ditu.
_____ naiz.



Lotu opera izenburu bakoitza dagokion konpositorearekin:

Bizet

Donizetti

Offenbach

Puccini

Rossini

Verdi

KONPOSITOREAK	OPERAK
	“La forza del destino”
	“Sevillako bizargina” (<i>Il barbiere di Siviglia</i>)
	“La Bohème”
	“La Traviata”
	“Les Contes d’Hoffmann “ (<i>Hoffmannen ipuinak</i>)
	“Errauskine” (<i>La Cenerentola</i>)
	“Carmen”
	“Maitasun elixirra” (<i>L’elisir d’amore</i>)



Lotu musika bakoitza dagokion opera izenburuarekin:

DOINU ZK.	OPERA+KONPOSITOREA

La Traviata

Orff taldea: "Brindis"

Ariketa honekin zuen ikasleek Orff musika-tresnekin *Traviata* (G. Verdi) antzeztea proposatzen dizuegu. Horrela, ordenagailu bidez, ikasleen eta obraren antzezpenak konbinatzeko aukera izango duzue horrela behar baduzue, zailtasun handiena duten ahots edo musika-tresnak, zuen ikasleen mailari egokituz.



LA TRAVIATA

(Brindis)

G. Verdi

Arreglos T. Aguilar

Flauta

Carillón y Xilófono

Metalófono

Teclado

Caja china / Maracas

Pandero

Triángulo

Güiro

Platillo





First system of musical notation, featuring a grand staff with four treble clefs and four bass clefs. The key signature is one sharp (F#). The notation includes various musical symbols such as notes, rests, and bar lines, indicating a complex piece of music.



Second system of musical notation, continuing the piece. It features the same grand staff and key signature as the first system. The notation includes various musical symbols such as notes, rests, and bar lines, indicating a complex piece of music.

